



EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEAREN ZENTZUA

Joxe Manuel Odriozola

Euskara irakaslea Pasaiko Udal Euskaltegian

Helbide elektronikoa: izarrekoo@euskalnet.net

HELBURUAREN ZENTZUA

Klaus Zimmermann-ek esaten du ahozko kulturaren oinarritutako herriaren edo komunitatearen identitatea ez dela etnia edo nazio osoari dago-kiona, ez dela alegia hizkuntza hori mintzo den herri guztiari datzekion kontzientzia eta auto-identifikazioa. Identitate lokala omen da halakoa. Hiztunaren bizi-eremuari dariona soil-soilik.

Esan dezagun, adibide bat jartze aldera, Gipuzkoako euskaldunak, hau euskaldun peto-petoa izanda ere, ez lukeela euskaraz mintzo den herri euskaldun osoaren identifikazio-mekanismoak garatuko euskaraz alfabetatua ez balego. Horra, gezurra badirudi ere, euskarazko kultura idatziaren lorpena eta irispina: euskal hizkuntza idatziaren kulturaren esku hartzen duen euskaldunak nekez alboratuko baitu herri euskalduna bere luze-zabalean. Ahozkoak ez duen eragina du beraz hizkuntza idatzi batu eta *nazionalak* hiztunaren nazio-identitatean.

Gau Eskolen garaietatik egungo euskaltegiak egin den bidearen helburu nagusia, nire ustez, Zimmermann-ek definitu digun horixe izan beharko luke. Izan beharko lukeela, diot, zeren, herri euskaldunaren zoritxarrerako, zalantza handiegia baititut halaxe izan dela aitortzeko.

Baina, nolanahi ere, Gau Eskolen garaian abian jarri eta egungo euskaltegietan hezurmamitu den euskalduntze-alfabetatzearen jardunak herri euskaldun *txikituaren* masa kritikoa sortzea izan beharko luke xede nagusi. Bidenabar: ez ditut begiko, ez *gutxiengo*, ez *eremu urriko hizkuntza*, eta are gutxiago *minoría* hitzak herri euskaldunari gertatu zaiona izendatzeko; aldiz, *txikitua* hitzak gutxienez bi adiera ditu, batetik, bere jatorrizko neurria *murritz* izanarena, eta, bestetik, berriz, desegin, suntsitu eta xehatu izanarena.

GAU ESKOLEN ZENTZUA

Frankismoaren azken hamarkadan erne zen mugimendu haren ezaugarri batzuk aletu beharko genituzke lehen-lehenik. Hastapenetan bertan parte hartu ez baguen ere, ondoko urteetan sartu ginen gu herri mugimendu haren *abenturan*. Oraingo erakundetze eta oraingo formalismoaren aldean, hura zinezko *abentura* baitzen hitzaren zentzurik sakonenean. Ikastolen herri-mugimendua eta euskal kantagintza izan ziren zentzu bertsuan, Gau Eskolen jardunbidea ere erdi agerian eta erdi ezkutuan egindako bidea izan baitzen. Erdi legala edo erdi ilegala izate horrek, noski, goitik behera markatu zuen orduko euskalgintzaren eremu hau.

Zertan zen bereizgarri oraingo euskalduntze-alfabetatze jardunarekin alderatuta? Hizkuntza bera zen eginkizun artean, euskara batuaren lehen urratsak ordukoak baitira. Euskara batuaren hastapenak zirenez, urruti zegoen artean Lizardiren ametsa: alegia, noranahiko eta zernahitarako trebatua eta egokitua izatearen ametsa orduan hasi zen poliki-poliki egia bihurtzen. Orduko testuen osaera ikusi besterik ez dago, *Anaitasuna*-n eta, euskalkien arteko nahas-mahasak nola oratzen genituen jakiteko. Euskara kultura-hizkuntza idatziaren bidean barrena murgilduko zuen ekinbidea abian jarri berria zen, beraz. Euskaldun guztiok herri bakar baten seme-alaba ginelako identifikazio-mekanismoa euskara batu idatziaren lorpena izan da neurri ohargarrian.

Jakina, aipatu dugun euskarazko herri mugimendu hori nekez erneko zen borborka ari zen kontzientzia abertzalearen testuingururik gabe. Gerra galduaren errautsetatik berriro piztutako abertzaletasunaren sugarretan hartu zuen epel euskarazko jardun orokorrak, eta Gau Eskolen loratzea ere epeltasun horren aterpean jaio zen. Horregatik, orduko ikasleen ezaugarriak eta oraingoak ez datoz bat ezaugarri askotan. Ikasle haien motibazioak eta oraingoak ez baitira iturri berekoak. Orduko ikasle gehienen jarrera ez zuen eragiten oraingo motibazio instrumentalak, lanerako-edo behar izateak, euskaldun izan nahi izatearen gogoak baizik. Horrela, kultur bitasunik gabeko elebitasunaren iruzur ikaragarria ordukoa baino areago da oraingoa. Euskal identitaterik gabeko euskararen ikasketa, berez ezinezkoa den amarrua, hizkuntza bat normalki erabiltzeak berezkoa baitu hizkuntza horren herri-kulturan murgiltzea, batez ere

Gau Eskolen garaietatik egungo euskaltegietara egin den bidearen helburu nagusia, nire ustez, Zimmermann-ek definitu digun horixe izan beharko luke. Izan beharko lukeela, diot, zeren, herri euskaldunaren zoritxarrerako, zalantza handiegiak baitituz halaxe izan dela aitortzeko. Baina, nolanahi ere, Gau Eskolen garaian abian jarri eta egungo euskaltegietan hezurmamitu den euskalduntze-alfabetatzearen jardunak herri euskaldun txikituaren masa kritikoa sortzea izan beharko luke xede nagusi.

*Orduko ikasle gehienen
jarrera ez zuen eragiten
oraingo motibazio
instrumentalak, lanerako-
edo behar izateak,
euskaldun izan nahi
izatearen gogoak baizik.
Horrela, kultur bitasunik
gabeko elebitasunaren
iruzur ikaragarria
ordukoa baino areago da
oraingoa. Euskal
identitaterik gabeko
euskararen ikasketa, berez
ezinezkoa den amarrua,
hizkuntza bat normalki
erabiltzeak berezkoa
baitu hizkuntza horren
herri-kulturan murgiltzea,
batez ere oraingo
mentalitate
soziolinguistiko light-
aren emaitza da.*

oraingo mentalitate soziolinguistiko *light*-aren emaitza da. Izan ere, eta ñabardurak ñabardura, euskara ez zuen ikusten orduko ikasle askok, gaurko gehienek bezala, nork bere buruaren definiziotik eta identitatetik at dagoen osagarri arrotz baten moduan.

Euskara herri honen nazio-identitatearen ikur nagusia zenez gero, eta ikasle haietako askok eta askok nazio edo herri horren partaide izan nahi zutenez gero, euskararen dimentsioa beren identitate-egituraren baitako tasuntzat jotzen zuten. Beraz, herri-proiektu zabalago baten tes-tuinguruan txertatua zegoen elementua zen euskararen auzia, eta proiektu zabal horren epelean erretako kontzientzia zen orduko motibazioaren muin-gunea. Hori esan ondoren, ordea, ez dezagun ederra ederregi eta itsusia itsusiegi paratu.

Beraz, ikus ditzagun beste zenbait ezaugarri, euskalduntze-alfabetatze mugimenduaren bilakaera ez desitxuratzeko: ez baikenuke, izan ere, iragana zeruaren pare jarri nahi oraina infernuaren zulora botatzeko. Oraingo ikasle gehienen asmoa euskaldun izan gabe, euskaldun izateko gogorik gabe, euskara ikastea baldin bada, ez dezagun pentsa orduko ikasle haiek zeharo euskaldunduta ateratzen zirenik ilunabarretan eratu-tako euskara-klase haietatik. Ez, orduan ere baziren eragozpenak, ez txi-kiak gainera, euskalduntze prozesua burutik burura hezurmamitzeko.

Orduan ere, orain bezala, euskararen egoera soziolinguistikoa, hiz-kuntza *txikitu* baten baldintzapean zegoen. Eta ondo asko dakigu zein neketsua den egoera sozial horretan dagoen hizkuntza bat ikastea. Orduan ere ikasleak ez zeukan aukera egokirik ikasten ari zen mintzaira praktikatzeko, gelatik atera orduko erdaraz eraturako giza harremanen sarean barneratzen zen, eta ideologia abertzalea edukitzeak ez du berez euskara ikasazten. Orain bezala, bizitza sozialaren giza sareak erdaldu-nak ziren, eta euskararekin zeukan lotura bakarra arratsetako klaseetara mugatzen zen, herri euskaldunen batekoa ez baldin bazen behintzat. Alde horretatik begiratuta, hortaz, oraingo faktore eragozle batzuk bezain txarrak zituen orduan ere, eta agian txarragoak zenbait lekutan.

Txarretik segituta, txarragoak ziren orduko beste baldintza hauek ere: jardun didaktikoari berari alde edo moldez datxezkion baliabideak, bate-tik, eta azpiegiturak, bestetik. Askoz ere makurragoak baitziren orduko baldintza materialak, konparaziorik gabe gainera. Elizaren edo ikastola-ren edo antzeko erakunderen batean antolatzen genituen gau eskolak. Euskaltzaindiaren babesaz gainera, horrelako erakunderen baten aterpea ezinbestekoa baikenuen, geurezko azpiegiturarik ezean. Didaktikari bera-ri bagagozkio, berriz, zer esanik ez: Patxi Altunaren euskara ikasteko *Eus-kara*, Hire Laguna metodoak, *Euskalduntzen* metodoak, eta Euskaltzaindia-ren Alfabetatze Batzordeak sorturikoak alde batera utzita, lehen urrats haietan ezer gutxi zeukan irakasleak bere lana burutzeko.

Emaitzak ere ezin bada, orain bezala, oso distiratsuak izan. Aitzitik, orain bezala, orduan ere euskaldunak aleka, banaka eta tantaka baizik ez

ziren sortzen. Bigarren hizkuntza beren bizitzaren komunikazio-jardunean txertatzen zutenak orduan ere bakanak ziren, arestian esan dugun moduan, identitate abertzaleak ez baitu miraririk egiten euskalduntzeko lantegian. Abertzaletasunak ez du euskaldunik sortzen, identitate politiko gartsuenak ere ez baitu berez euskal identitate kulturalik erditzen.

Inor euskaldun bihurtuko bada, euskaraz bizi behar, bizitza soziolinguistikoari darion tasuna baita euskalduntasuna. Hizkuntza ez delako, hain zuzen, jardun akademiko hutsaren eskutik datorkigun ezaugarria beste prozesu kognitibo gehienetan bezala. Mintzaira mintzotik dator, giza sare komunikatiboak josten dituen mintzotik, bizitza bera eratzekeo daukagun errealtatetik: besteak beste, hitzaren lantegian eratzen eta oratzen baitugu geure bizitza soziala eta pertsonala. Ez dago mintzorik gabeko giza bizitza sozialik eta psikologikorik. Hizkuntza bat ikasteak hizkuntza horretan bizitzea dauka eskakizun, erabiltzen ez den mintzaira, pentsatzekoa denez, ezin delako egokiro erabiltzeko moduan ikasi.

EUSKALTEGIEN ZENTZUA

Euskaltegien zentzua arestian aipatutakoaren harian ezarriko nuke nik berriro ere: herri euskaldunaren muin-gunea garatzeko xedez, herri honek bizitza soziolinguistikoa modu autonomoan eratzekeo behar lukeen masa kritikoa osatzean datza nire ustez eginbeharrik behinena. Hizkuntza politikaren estrategiak xede horretara errenditu ezean, ez ote gara alferrik ari gure lanean? Zer erdiesten ote dugu halakoak EGA eta honakoak dagokion Hizkuntza Eskakizuna lortzearekin, estrategia nagusi horretan huts egiten baldin badugu? Zertarako balio digu izan ere egungo euskalduntze-alfabetatzearen jardunak bihar-etziko ikasleen bizitza soziolinguistikoan euskara bigarren edo hirugarren mailako mintzaira arrotza eta artifiziaia izango bada? Eta, salbuespenak salbuespen, ez ote gara ari lanean porrot itzel horren zuloan amilduta? Nekez ezetsi lezake inork halakorik, nik uste, darabilzkien betaurrekoak ikusi nahi duena ikusteko besterik erabiltzen ez baditu behinik behin.

Has gaitezen arazoaren muinetik beretik. Muinaren muinean ez ote dago izan ere gaurko euskaltegietan euskara ikasten ari diren ikasle gehien-gehien jarrera eskasa? Eta, jarrera dela-eta, egun hauetan nire eskuetara iritsi zaidan albistea hartuko dut euskarritzat gai honetan ene ikuspuntua agertzeko. Eusko Jaurlaritzaren Euskara Zerbitzuak argitaratu duen liburu baten berri eman digu Miel A. Elustondok: *Hizkuntza jarrerak lantzen* (Argia, 2007-1-28). Euskarara itzuli berri dute Bernat Joan i Mari-ren liburua. Egia esan, bazegoen premiarik, premiarik bazegoenez.

Inon izatekotan, hizkuntzen ikasketan da hil ala biziko auzia ikaslearen jarrera. Elustondok hitz hauetan laburbiltzen digu egile katalanaren ekarpena: “Jarrerak lantzeak, hortaz, autoestimua bultzatzea esan nahiko du, hizkuntza galeraren sorburuari buruz ahalik eta informazio gehien

Orduan ere, orain bezala, euskararen egoera soziolinguistikoa, hizkuntza txikitu baten baldintzapean zegoen. Eta ondo asko dakigu zein neketsua den egoera sozial horretan dagoen hizkuntza bat ikastea. Orduan ere ikasleak ez zeukan aukera egokirik ikasten ari zen mintzaira praktikatzeko, gelatik atera orduko erdaraz eratutako giza harremanen sarean barneratzen zen, eta ideologia abertzalea edukitzeak ez du berez euskara ikasgarazten.

***Zertarako balio digu izan
ere egungo euskalduntze-
alfabetatzearen jardunak
bihar-etziko ikasleen
bizitza soziolinguistikoa
euskara bigarren edo
hirugarren mailako
mintzaira arrotza eta
artifiziala izango bada?
Eta, salbuespenak
salbuespen, ez ote gara
ari lanean porrot itzel
horren zuloan amilduta?
Nekez ezetsi lezake inork
halakorik, nik uste,
darabilzkien
betaurrekoak ikusi nahi
duena ikusteko besterik
erabiltzen ez baditu
behinik behin.***

zabaltzea eta, horrekin batera, galera sortu duten mekanismoak aztertzea. Hizkuntzarekiko jarrera egokiak hizkuntza gutxituetako hiztun ez direnen integrazio soziolinguistikoa bultzatu behar du, hizkuntza hartan jakiteak dituen abantailai buruzko informazioa zabalduz. Garrantzizkoa, Joan i Mariren esanetan, norbere kulturen oinarritutako unibertso sinbolikoa sortzea eta, horri dagokionez, <beharrezkoa da hezkuntza-programak goitik behera aldatzea. (...) Garbi utzi behar da hamar urteko ume guztiek zer jakin behar duten bere kulturari eta bere herriari buruz>”.

Hori eta horrenbestez: eskolako umeak ez ezik, euskaltegiko ikasleak zer jakin behar luke euskal kulturaz eta Euskal Herriaz euskara ikasi ahala? Ez dit inork ukatuko noski eskolako umeek euskararekin daukaten arazoa eta euskaltegietako ikasle helduek daukatena funts-funtsean gauza berbera dela. Batzuek nahiz besteek euskararen egoera soziolinguistikoa makurra dute arerio, eta horren ondorioz, jarrera epelak eta txepelak nagusi dira bi kolektiboetan. Umeen jarrera, hala ere, ulergarriagoa egiten zait niri neuri, umearen jarrera sena praktikoa gidatua izaten baita osotara: umea, ez dago esan beharrik, nekez hasiko da euskara edo herri euskalduna *txikitu* izanak bere euskalduntzeari dakartzkion ondorio txarrak hausnartzen.

Gatozen orduan helduen hizkuntza jarrerari gaineko azala urratzera: hori urratuta, zer ageri zaigu egiazki mamiaren muinean? Gogorra da esatea, baina esan egin dut hala ere, gogorraren gordinak ezin baitu gure egoeraren gorria etengabeki estali: kolonoaren jarrera ageri zaigu. Hara esana.

Eta zertan da kolonoaren jarrera? Mentalitate kolonizatzaileak ez du onartzen eta aitortzen jatorrizko herriaren identitate-eskubiderik. Bere hizkuntzan eta kulturen bizi da, ia inolako eragozpenik gabe bizi ere, eta egoera hori guztiz eta erabat zilegia dela sinetsita dago. Etxean sentitzen da, jatorrizkoa baino etxekoagoak dira bere hizkuntza eta kultura. Ez du uste euskara ikastea eta euskalduna izatea betebeharririk eta morala duenik. Ez du uste elebitasunaren eta kultur bitasunaren inperatibo moralak berarekin zer ikusirik duenik. Ez, berak uste du berak eskubide oso-oso daukala bizi den identitate espainolean edo frantsesean bizitzeko, eta lanerako-eta eskatzen dizkieten euskara-agiriak nazionalista nazkagarri zitalkeria besterik ez direla pentsa lezake. Izan ere, euskara zertarako behar du bada, ia inork hitz egiten ez duen mintzaira izanda?

Kolonoei buruz esandakoak berdin-berdin balio du bertako euskotarrarentzat eta abertzale erdaldun gehienentzat ere. Hauen jarrera ere, aldeak alde, berdintsua da azken buruan. Hauek abertzale izatearekin nahikoa dute nonbait, beren burua halakotzat jotzen dutenean. Hauek ere ez dute herri euskaldunarekiko oinarritzko begirunerik eta jarrera egokirik erakusten. Ez dute beraiena ez den euskal identitatean bizitzeko eskubidea aintzat hartzen. Hauek ere sutan jartzen dira lanerako-edo eskuragaitza duten agiriren bat eskatzen zaienean.

Aldeak alde, herri euskaldunarekiko jarrera horixe da nagusi gaur egungo euskaltegi gehienetako ikasle gehienetan. Eta euskaltegien barruko jarrera hori ez da noski euskaltegietan bertan sortua: ez, kanpoko arazoa da hori. Kanpotik dator. Euskaltegietako atea jende erdaldun gutxik jotzen du, hutsaren hurrengoak, gure herrian jaun eta jabe den erdal komunitate osoa kontuan hartuta. Hizkuntzazko eta kulturazko jarrera kolonizatzaile hori ia erdal komunitate osoaren ezaugarri arbuiagarria da, eta horrela erraz ulertzen dugu euskara ikastera *behartuta* sentitzen direnen jarrera.

Hitz batean: herri euskaldunaren aurkako jarrera da nagusi euskara ikasi nahi omen dutenen artean. Alde ez egotea berez aurka egotea delako auzi hauetan. Alde ez egoteak berez nagusi den estatus soziolinguistikoa ezartzen duelako hain zuen. Hizkuntza eta kultura gaietan *tolerantzia* eta *errespetua* bezalako hitzak, hitz maltzurak dira, hitz horien aitzakiapen nork bere hizkuntza eta kultura aldamenekoari inposatzen dionean. Eta horretan gara gaur egun Euskal Herria izeneko herri arrotzu honetan.■

*Ez dit inork ukatuko
noski eskolako umeek
euskararekin daukaten
arazoa eta
euskaltegietako ikasle
helduek daukatena funts-
funtsean gauza berbera
dela. Batzuek nahiz
besteek euskararen egoera
soziolinguistiko makurra
dute arerio, eta horren
ondorioz, jarrera epelak
eta txepelak nagusi dira
bi kolektiboetan. Umeen
jarrera, hala ere,
ulergarriagoa egiten zait
niri neuri, umearen jarrera
sena praktikoak gidatua
izaten baita osotara.*